## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

## Zk-4086

AGINDUA, 2003ko ekainaren 25ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. Honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako udal-merkatuei zuzendutako diru-laguntzen emakida arautu da, merkatu horietan egiturazko aldaketak egin ditzaten, dagozkien merkatariek edo beren erakunde ordezkariek bultzatuta.

121/2000 Dekretuak (ekainaren 27koa, ekonomia sustatzeko laguntza-lerroak ezartzen dituena), III. kapituluan, merkataritza-arloko laguntza-lerroak arautu ditu, eta, 20. artikuluan, zehazki, udal-merkatuei laguntzak emateko programa arautu du. Eta, lehendabiziko azken xedapenean, dekretu hori garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko ahalmena eman zaio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari.

Dekretu horren babesean, 2000ko ekainaren 30eko Agindua (2000ko abenduaren 5eko Aginduaz aldatua) eman zuen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak. Hor arautu zen Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako udal-merkatuei zuzendutako diru-laguntzen emakida, merkatu horietan egiturazko aldaketak egin ditzaten, dagozkien merkatariek edo beren erakunde ordezkariek bultzatuta. Agindu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan egonda, zuzenean, dagozkien merkatariek kudeatzen dituzten txikizkako udal-merkatuetan egindako inbertsio-proiektuetarako laguntzen esparru orokorra definitu zen.

Tradizionalki, txikizkako udal-merkatuek herritarrak hornitu izan dituzte, eta benetako espezialista izan dira produktu freskoetan. Banaketako egiturak eta kontsumitzaileen ohiturak aldatu izanak eragin erabakigarria izan dute txikizkako udal-merkatuetan, eta une honetan beharrezkoa da egoera berrietara egokitzea. Horregatik, beharrezkoa da, batetik, osoko berregituratzean laguntzea, batez ere kalitateaz ari garela (kantitatearen aldetik baino gehiago). Eta bestetik, merkataritza-enpresek kudea dezaten laguntza ematea; antolamendu-egitura berria ezartzea dakar horrek.

Egin beharreko ekintzen xede nagusia izan behar da egitura horietan integratutako merkataritza-enpresen eta txikizkako udal-merkatu osoaren baldintzak inguruko baldintza eta eskarietara egokitzea. Ondorio horietarako, honakoak joko dira enpresa onuraduntzat: merkatu horietan dauden enpresa ertain eta txikiak eta merkatariek parte hartzen duten merkatari-elkarteak edo nortasun juridikoarekiko bestelako erakundeak, betiere udal-merkatua berregituratzen badute eta hura kudeatzen badute.

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

## N°-4086

ORDEN de 25 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se desarrolla la concesión de ayudas económicas a los Mercados Municipales Minoristas del País Vasco para la realización de cambios estructurales en los mismos impulsados por sus comerciantes o sus entidades representativas.

El Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas Líneas de Ayudas con Fines de Promoción Económica, regula en el Capítulo III las líneas de ayuda en el área de Comercio, regulando en su artículo 20 el programa de Ayudas a mercados municipales, facultándose en su Disposición Final Primera al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

Al amparo del citado Decreto, fue dictada la Orden de 30 de junio de 2000, modificada por Orden de 5 de diciembre de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas económicas a los Mercados Municipales Minoristas del País Vasco para la realización de cambios estructurales en los mismos impulsados por sus comerciantes o sus entidades representativas, en la que se definió el marco general de las ayudas destinadas a los proyectos de inversión realizados en los Mercados Municipales Minoristas radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco y gestionados directamente por sus comerciantes.

Tradicionalmente, los Mercados Municipales Minoristas han asegurado el abastecimiento de la población siendo verdaderos especialistas en producto fresco. Los cambios en la estructura distributiva y en los hábitos de los consumidores, han incidido de manera determinante en la marcha de los Mercados Municipales Minoristas, siendo preciso en estos momentos una adecuación a las nuevas circunstancias. Por ello, se hace necesario apoyar su reestructuración integral, en un sentido más cualitativo que cuantitativo, e impulsar su gestión por las empresas comerciales, con la consecuente implantación de un nuevo modelo organizativo.

Las acciones a realizar han de tener como finalidad principal la adecuación de las condiciones de las empresas comerciales integradas en estas estructuras así como del conjunto del Mercado Municipal Minorista a los requisitos y demandas de su entorno. A estos efectos, tendrán la consideración de empresas beneficiarias las PYMEs ubicadas en estos mercados así como las Asociaciones de comerciantes u otras entidades con personalidad jurídica propia en la que participen los comerciantes y que lideren y gestionen la reestructuración del mercado municipal.

Itzultzekoa ez den laguntzaren modalitatean nahiz finantza-kostua murrizteko modalitatean emango dira laguntzak, betiere etorkizunean hitzartzen diren hitzarmenen babespean egiten diren mailegu-eragiketez ari garela. Edozein kasutan, honakoak diruz lagun daitezkeen kontzeptuak izango dira: azterketak egitea, txikizkako udal-merkatuaren osoko transformaziorako edota txikizkako salmenta-postuak gaitzeko eta ekipatzeko inbertsioak gauzatzea.

Merkatuen osoko transformaziorako inbertsioen hedadura medio, pizgarriak aldatzea komeni dela ikusi da, gaur egungo beharrizanetara egokitzeko. Aldaketa horiek eta ezarri nahi diren beste batzuk ikusita, aurreko agindua indargabetzea komeni da, eta haren ordez beste xedapen bat ezartzea, aldaketak sistematikoki artikulatuko dituena.

Horren guztiaren ondorioz,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea

1.– Agindu honen xede da 121/2000 Dekretuko (ekainaren 27koa, ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen dituena) 20. artikuluan ezarritako udal-merkatuei laguntzeko programako esparru orokorra garatzea.

2.– Laguntza-programa horri jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoan diren eta merkatariek berek kudeatutako txikizkako udal-merkatuetan egindako inbertsio-proiektuetarako laguntza ekonomikoak emango dira. Inbertsio horiek merkatu horiek kalitatearen aldetik berregituratzeko eta egiturak eta merkatariak ingurunearen baldintza eta eskarietara egokitzeko izan behar dute.

*2. artikulua.–* Baliabide ekonomikoak

1.– Aurreko artikuluan adierazitako helburura zuzendutako ekonomia-baliabideek sorburu hau izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak.

Agindu honetan arautzen diren laguntzen zenbateko osoa, dagokion deialdi-ebazpenean adierazitakoa, aldatu egin ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan izanda, eta honako baliabide hauen gorabeheran: Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk aurrera eramatean agortu gabe geratu diren aurrekontu-programen gorabeheran, alegia. Merkataritza eta Kontsumo sailburuordearen ebazpenaren bidez, halako aldaketen berri zabalduko da.

Las ayudas se concederán bien en la modalidad de subvención no reintegrable bien en la modalidad de reducción del coste financiero de aquellas operaciones de préstamo que se formalicen al amparo del Convenio o Convenios que se suscriban en el futuro. En todo caso, serán conceptos subvencionables la realización de estudios, la ejecución de inversiones destinadas a la transformación integral del mercado municipal minorista o a la habilitación y equipamiento de los puestos de venta minoristas.

Se ha constatado que la amplitud de las inversiones destinadas a la transformación integral de mercados aconsejan una modificación de los incentivos necesarios para adecuarlos a las necesidades actuales. A la vista de estas modificaciones y otras que se pretenden introducir, resulta conveniente derogar la Orden anterior y sustituirla por una nueva disposición que articule los cambios introducidos de una manera sistemática.

En su virtud,

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto

1.– El objeto de la presente Orden es desarrollar el marco general del Programa de Ayudas a mercados municipales establecido en el artículo 20 del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica.

2.– De acuerdo con dicho Programa de ayudas, se otorgarán ayudas económicas destinadas a los proyectos de inversión realizados en los Mercados Municipales Minoristas radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco gestionados por los propios comerciantes. Las inversiones se dirigirán a la reestructuración cualitativa de dichos Mercados, para su adecuación estructural y la de sus comerciantes a los requisitos y demandas de su entorno.

*Artículo 2.–* Recursos Económicos

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El importe global de las ayudas reguladas en la presente Orden, consignado en la correspondiente resolución de convocatoria, podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución de la Viceconsejera de Comercio y Consumo.

2.– Administrazio-ebazpen baten bidez laguntzak ukatuko dira, baldin laguntza horiek emateko erabili beharreko aurrekontuan helburu horretarako kreditu egokia eta nahikoa ez badago. Horregatik guztiagatik, programa hau indarrean den bitartean, baldin ekitaldi ekonomiko batean laguntzak emateko esleitutako kreditua bukatzen bada, horren berri zabaltzeko, administrazio-ebazpena emango du Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak. Ebazpenean, kreditua zein egunetan bukatu den adieraziko da. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Dena dela, ekitaldi bateko aurrekontu-kredituari eslei dakizkioke aurreko ekitaldietan aurkeztutako inbertsio-proiektuei buruzko laguntza eskariak. Horretarako, nahitaezkoa da proiektu horiek agindu honetan laguntzak lortzeko araututa dauden betekizunak bete ditzaten, eta gainera, proiektu horiek hasi ziren ekitaldietako aurrekontu-kredituekin laguntzerik ez izatea. Lehentasunak erabakitzeko, ukatutako lehenengo eskariaren data gorde egingo da.

3.– Laguntzak ordenan emango dira, espedientea osatuta dagoen unearen arabera.

*3. artikulua.*– Laguntzen modalitatea

Agindu honetan arautako laguntzak gauzatzeko, honako modalitate hauek erabiliko dira:

a) Agindu honen babespean eta ondorio horietarako Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten finantza-erakundeekin sinatzen diren lankidetza-hitzarmenen babespean, gauzatzen dituzten maileguen edota finantza-errentamenduko eragiketen finantza-kostua murriztea.

b) Itzultzekoak ez diren diru-laguntzak.

*4. artikulua.*– Erakunde onuradunak

1.– Laguntza horiek jaso ahalko dituzte:

a) Enpresa ertain eta txikiek, baldin txikizkako udalmerkatuan badihardute eta hura berregituratzeko osoko proiektuan parte hartzen badute. Enpresa ertain edo txikitzat joko da nortasun fisiko edo juridikoko unitate ekonomikoa, eskariaren unean hurrengo baldintzak betetzen dituena:

– 250 langile baino gutxiago izatea.

– Urteko negozio-bolumena 40.000.000 euro baino gehiagokoa ez izatea. Edo, bestela, urteko balantze orokorra 27.000.000 euro baino gehiagokoa ez izatea.

– Aurreko betekizunetakoren bat betetzen ez duen (edo duten) beste enpresa batek (edo batzuek) enpresa horretan kapitalaren edo boto-eskubideen %25eko partaidetza edo handiagoa ez izatea, zuzenean edo zeharka.

2.– Mediante resolución administrativa se procederá a denegar las ayudas en el caso en que el presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida. Por todo ello, mientras se encuentre vigente el presente programa si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, se emitirá resolución administrativa por el Departamento de Industria, Comercio y Turismo en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

En todo caso, se podrán imputar a los créditos presupuestarios de un ejercicio las nuevas solicitudes de ayudas relativas a proyectos de inversión presentados en los ejercicios anteriores, siempre que los citados proyectos cumplan con los requisitos establecidos en la presente Orden para la obtención de ayudas y que, además, no hayan podido ser atendidos con los créditos presupuestarios del ejercicio en el que se iniciaron. A los efectos de criterios de prioridad se conservará la fecha de la primera solicitud denegada.

3.– La concesión de las ayudas se irá realizando ordenadamente en función del momento en que el expediente esté completo.

*Artículo 3.*– Modalidad de las ayudas

Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de las siguientes modalidades:

a) Reducción del coste financiero de las operaciones de préstamo o de arrendamiento financiero, que se formalicen al amparo de la presente Orden y del Convenio o Convenios de Colaboración que a tal efecto se suscriban con las Entidades Financieras que operan en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Subvenciones no reintegrables.

*Artículo 4.*– Entidades Beneficiarias

1.– Podrán acceder a estas ayudas:

a) Las pequeñas y medianas empresas (PYMEs) que desarrollen su actividad en un Mercado Municipal Minorista y que participen en un proyecto integral de reestructuración del mismo. Se entenderá por Pequeña o Mediana Empresa, la unidad económica con personalidad, física o jurídica, que en el momento de la solicitud, cumpla los siguientes requisitos:

– Que emplee a menos de 250 trabajadores.

– Que su volumen de negocio anual no exceda de 40.000.000 euros, o su balance general anual no exceda de 27.000.000 euros.

– Que no se halle participada directa o indirectamente en un porcentaje igual o superior al 25% de su capital o de sus derechos de voto por otra empresa o conjuntamente por varias de ellas, que no reúnan los requisitos anteriormente expuestos.

Aurrez adierazitakoari buruz beste edozer interpretatzeko, 1996ko apirilaren 3ko Batzordearen Gomendioan (edo hura ordezkatu nahiz aldatzen dutenetan) enpresa ertain eta txikien definizioaz esandakoa hartuko da kontuan.

Edonola ere, adierazitako enpresen jarduera nagusia merkataritzakoa izan behar da, negozio-bolumenari dagokionez.

Arau honen ondoriotarako, merkataritza-jardueratzat joko da helburu horrekin eskuratutako produktu edo merkantziak, funtsezko aldaketarik gabe, merkatuaren eskura jartzea, bai eta ekoizleek, artisauek edo industrialariek zuzenean azken kontsumorako ondasunak saltzea ere. Halako ondasuntzat jotzen dira hirugarrenei zerbitzuak eskaintzeko, ekoizteko edo merkaturatzeko prozesuetan integratzeko ez direnak.

b) Merkatari-elkarteak eta nortasun juridiko propioa duten bestelako erakundeak, duten forma juridikoa gorabehera, baldin txikizkako udal-merkatuetako merkatariek parte hartzen badute haietan eta kudeatu egiten badituzte, betiere, erakunde horiek behar besteko ordezkaritza badute.

Ondorio horietarako, behar besteko ordezkaritza dutela joko da merkatarien % 60 hartzen dutenean.

c) Merkatari-taldeak edo enpresa arteko egiturak, nortasun juridikoa dutenak nahiz ez dutenak, gehienbat txikizkako udal-merkatuetakoak diren merkataritzako enpresa ertain eta txikiek osatzen dituztenak, elkarren arteko mendekotasunik gabeak, a) idatz-zatian jasotzen direnak, kokatzen diren txikizkako udal-merkatua berregituratzea sustatzea dutenak oinarrizko helburutzat.

Legezko nortasunik ez badu, merkatari-taldeak edo enpresa arteko egiturak behar beste ziurtatuta geratu beharko du konpromiso baten bidez. Konpromiso horretan, argi zehaztuko dira xehetasun hauek: egiturak zein ordezkaritza duen; diru-laguntzak aurkeztutako inbertsiorako erabiliko direla ziurtatzeko bermeak; enpresa onuradun guztien zerrenda; onuradunen konpromisoak; eta horietako bakoitzaren artean inbertsioa nola banatu den.

2.— Agindu honetan araututako laguntzak nahiz diru-laguntzak enpresa onuradunei edo erakundeei onartu eta, hala badagokio, ordaindu aurretik, amaitu egin behar dira prozedura hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako antzeko laguntzak edo diru-laguntzak direla kausa laguntzak itzultzeko edo zigortzeko hasi diren prozedurak, baldin halako prozeduraren baten izapideak aurrera badoaz une horretan.

Para cualquier otra interpretación de lo señalado anteriormente, se tendrá en cuenta lo establecido en la Recomendación de la Comisión de 3 de abril de 1996, sobre la definición de pequeñas y medianas empresas, o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

En cualquier caso las empresas señaladas deberán ser empresas cuya actividad principal, en cuanto al volumen de negocio, sea comercial.

A los efectos de la presente norma, se entenderá por actividad comercial la puesta a disposición del mercado de productos o mercancías adquiridas con esa finalidad, sin modificación sustancial de las mismas, así como la venta de bienes de consumo final realizada directamente por los productores, artesanos o industriales, entendiéndose por tales bienes aquellos no destinados a integrarse en procesos de producción, comercialización o prestación de servicios a terceros.

b) Las Asociaciones de comerciantes y aquellas otras entidades con personalidad jurídica propia, cualquiera que sea la forma jurídica que adopten, en las que participen los comerciantes de los Mercados Municipales Minoristas y que gestionen los mismos, siempre que estas entidades sean suficientemente representativas.

A estos efectos, se entenderán suficientemente representativas cuando agrupen un 60% de comerciantes.

c) Agrupaciones de comerciantes o estructuras interempresariales, con o sin personalidad jurídica, constituidas mayoritariamente por pequeñas y medianas empresas comerciales radicadas en los Mercados Municipales Minoristas, no dependientes entre sí, recogidas en el apartado a), cuyo objetivo básico sea la promoción de la reestructuración del Mercado Municipal Minorista donde se ubican.

En el supuesto de que no tuviera personalidad jurídica, la agrupación de comerciantes o estructura interempresarial deberá quedar suficientemente acreditada mediante un compromiso en el que se establezca con claridad la representación de la estructura, las garantías para destinar la subvención a la inversión que se presenta, la relación de todas las empresas beneficiarias, sus compromisos y la distribución de la inversión entre cada una de ellas.

2.— La concesión y, en su caso, el pago a las entidades o empresas beneficiarias de las ayudas reguladas en esta Orden quedará condicionada a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

II. KAPITULUA

LAGUNTZAK

LEHEN ATALA

AKTIBO FINKOETAN INBERTITZEKO PROIEKTUEN FINANTZA ERRENTAMENDUKO ETA MAILEGUKO ERAGIKETEN FINANTZA KOSTUA MURRIZTEKO LAGUNTZAK.

*5. artikulua.*– Diruz lagun daitezkeen proiektuak

Kapitulu honen ondorioetarako, honako betekizunak betetzen dituztenak hartzen dira diruz lagun daitezkeen inbertsio-proiektutzat:

1.– Agindu honetako 4. artikuluko 1 a) idatz-zatian zehazten diren enpresek egindakoak, baldin salmenta-postuak gaitzea eta ekipatzea badute xede.

2.– Agindu honetako 4. artikuluko 1.b) idatz-zatian zehazten diren erakundeetakoren batek egindakoak, baldin honako xedea badute: udal-merkatuen osoko eraldatzea, betiere elementu komunak birgaitzeko eta egiturak egungo beharrizanetara egokitzeko inbertsioak gauzatuta.

3.– Eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako udal-merkatuetan kokatu behar dituzte inbertsio-proiektuak.

Edonola ere, laguntzaren helburu diren aktiboak txikizkako udal-merkatuetako edota haietan dauden merkataritzako enpresa ertain eta txikietako merkataritza-jarduerei zuzenean lotuta egon beharko dira.

4.– Inbertsio-proiektuek bideragarri izan behar dute teknikaren, ekonomiaren eta finantzaren aldetik.

5.– Inbertsio-proiektuetan, ekitaldi batean baino gehiagotan gauzatzen diren proiektuak diren gorabehera, deialdi-ebazpena indarrean sartzen den ekitaldian egindako inbertsioak baino ezingo dira diruz lagundu. Hortaz, ekitaldi bakoitzean aldi horretan egin daitekeen proiektuaren zatiari dagokion diru-laguntza eskatu behar da.

6.– Inbertsio-proiektuek, diru-laguntza jaso ahal izateko, deialdia egiteko ebazpena indarrean sartzen den ekitaldian gauzatutako inbertsioak baino ez ditzakete beren baitan hartu. Emakida-ebazpena egokitzen den ekitaldian egotziko dira laguntzak. Inbertsioak ekitaldi horretan erosi direla joko da, baldin ekitaldi horretako behin betiko eskariaren edo fakturaren bidez justifikatzen badira.

Dena dela, aski justifikatutako zergatiengatik proiektua gauzatzeko epean atzerapenik izanez gero, Merkataritza Zuzendaritzak gehienez sei hilabeteko luzapena onartu ahal izango du, inbertsio-proiektua erabat amaitzeko eta egiaztatzeko. Horretarako, behar be-

CAPITULO II

AYUDAS

SECCIÓN PRIMERA

AYUDAS DESTINADAS A LA REDUCCIÓN DEL COSTE FINANCIERO DE LAS OPERACIONES DE PRÉSTAMO Y DE ARRENDAMIENTO FINANCIERO DE PROYECTOS DE INVERSIÓN EN ACTIVOS FIJOS.

*Artículo 5.*– Proyectos Subvencionables

A los efectos del presente capítulo, se consideran proyectos de inversión susceptibles de ayuda, aquellos que cumplan los siguientes requisitos:

1.– Los realizados por las empresas a que se refiere el apartado 1 a) del artículo 4 de la presente Orden y que tengan por objeto la habilitación y equipamiento de los puestos de venta.

2.– Aquellos acometidos por alguna de las entidades a que se refiere el apartado 1.b) del artículo 4 de la presente Orden y que tengan por objeto la transformación integral de mercados municipales mediante la ejecución de inversiones en elementos comunes para rehabilitar y adecuar las estructuras a las necesidades actuales.

3.– Los solicitantes deberán localizar los proyectos de inversión en los Mercados Municipales Minoristas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En todo caso, los activos objeto de apoyo, deberán estar directamente relacionados con las actividades desarrolladas en los Mercados Municipales Minoristas o PYMEs comerciales ubicadas en los mismos.

4.– Los proyectos de inversión deberán ser viables técnica, económica y financieramente.

5.– En los proyectos de inversión, con independencia de que se trate de proyectos cuya realización se efectúe en más de un ejercicio, únicamente serán subvencionables las inversiones efectuadas en el ejercicio correspondiente al de entrada en vigor de la resolución de convocatoria. Por lo tanto, se deberá solicitar en cada ejercicio la subvención correspondiente a la parte del proyecto realizable en el período.

6.– Los proyectos de inversión, para ser subvencionables, deberán comprender únicamente inversiones adquiridas en el ejercicio correspondiente al de entrada en vigor de la resolución de convocatoria. Las ayudas se imputarán al ejercicio en que recaiga la resolución de concesión. Se entenderá que las inversiones han sido adquiridas en el mencionado ejercicio, si se justifican a través de pedido en firme o factura definitiva de dicho ejercicio.

No obstante, cuando por causas debidamente justificadas, el proyecto vaya a sufrir una demora en el plazo de materialización, la Dirección de Comercio podrá conceder una prórroga máxima de seis meses para la completa culminación y justificación del proyecto de

zala eskatu beharko da luzapena, egiaztatzeko ezarritako epea edo mugaeguna iritsi aurretik.

*6. artikulua.–* Diruz lagun daitekeen inbertsioa

1.– Laguntzak kalkulatu ahal izateko, ondorengo hauek joko dira diruz lagun daitezkeen inbertsiotzat: enpresako aktibora gehitzen diren aktibo finkoak erostea. 4.1.a) eta 4.1.b) idatz-zatietan aipatutako erakunderen batek egindako erosketak izan behar dira. Aktibo horiek, agindu honetan eta agindu hau garatzen duten xedapenetan araututakoari jarraituz bete beharreko baldintzez gain, beste baldintza hauek ere bete behar dituzte:

a) Ondorengo kategoria hauetakoren batekoa izatea. Kategoria horiek Kontabilitateko Plan Orokorrean (abenduaren 20ko 1643/1990 Errege Dekretuan jasoa) ezarri dira, segidan adierazitako idatz-zati hauetan:

– 215 Aplikazio informatikoak.
– 220 Lurrak eta ondasun naturalak.
– 221 Eraikuntzak.
– 222 Instalazio teknikoak.
– 223 Makineria.
– 224 Tresneria.
– 225 Bestelako instalazioak.
– 226 Altzariak.
– 227 Informazioa prozesatzeko ekipoak.

Lurren kasuan, eraikitako partearengatik baino ez daiteke diruz lagun.

Aktiboen preziotzat haien balio «garbia» hartuko da, hots, fakturatutako zenbatekoari Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta ateratzen den balioa.

b) Estreinakoz erabiltzen diren edo estreinakoz funtzionatzen duten tresnak izatea. Erabilitako eraikinak edo eraikuntzak erostea izanez gero, berritzat hartuko dira eraikin edo eraikuntza horiek.

c) Gutxienez, hiru urtez izatea enpresaren aktiboan eta merkatuan, dagokion fakturaren datatik hasita.

d) Erakunde edo enpresa eskatzaileak berak fabrikatuak ez izatea.

e) Eraikinak erosteko inbertituz gero, dagokion eskrituran azaltzen den balioa hartuko da oinarritzat.

2.– Laguntzak kalkulatzeko, hau besterik ez da kontuan hartuko: laguntzak eskatzen diren urtean aktiboek duten eroste prezioa. Berdin dio ekitaldi batean baino gehiagotan egiten diren proiektuak badira ere. Aktibo horiek enpresan egon beharko dute fisikoki, dagokien ikuskatzea egiten denean, eta ekitaldi horretako fakturekin egiaztatuko dira.

*7. artikulua.–* Finantza-eragiketak

1.– Atal honetan araututako laguntzak honakoei dagozkie: alde batetik, finantza-erakundeekin gauzatze-

inversión, siempre que dicha prórroga sea debidamente solicitada en fecha anterior al plazo o limite de justificación establecido.

*Artículo 6.–* Inversión subvencionable

1.– Se considera inversión subvencionable a efectos del cálculo de las ayudas, la adquisición de activos fijos realizada por alguna de las entidades a que se refiere el artículo 4.1.a) y 4.1.b), que se incorporen al activo de la empresa y que cumplan, además de lo que fuera de aplicación en virtud de lo dispuesto en la presente Orden y sus disposiciones de desarrollo, los requisitos que se indican a continuación:

a) Que se trate de alguna de las siguientes categorías, según la definición que, al efecto, establece el Plan General de Contabilidad, recogido en el Real Decreto 1643/1990 de 20 de Diciembre, en los epígrafes siguientes:

– 215 Aplicaciones informáticas.
– 220 Terrenos y bienes naturales.
– 221 Construcciones.
– 222 Instalaciones Técnicas.
– 223 Maquinaria.
– 224 Utillaje.
– 225 Otras instalaciones.
– 226 Mobiliario.
– 227 Equipos para procesos de información.

En el caso de terrenos, serán subvencionables únicamente por la parte edificada.

Se considerará como precio de los activos su valor «neto», entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

b) Que sean utilizados o entren en funcionamiento por primera vez. En el caso de que se trate de la adquisición de edificios y otras construcciones ya usados, tendrán el tratamiento de nuevos.

c) Que permanezcan, como mínimo, tres años (que computará a partir de la fecha de la factura correspondiente) en el activo de la empresa y mercado.

d) Que no hayan sido fabricados por la propia entidad o empresa solicitante.

e) En el caso de inversión en adquisición de edificios, el valor tomado como base será el reflejado en la correspondiente escritura.

2.– Para el cálculo de las ayudas se tendrá en cuenta, únicamente, el importe de adquisición de activos realizada en el año de la solicitud de las mismas, con independencia de que se trate de proyectos cuya realización se efectúe en más de un ejercicio. Estos activos deberán encontrarse físicamente en la empresa en el momento de la inspección correspondiente y se justificarán con facturas del citado ejercicio.

*Artículo 7.–* Operaciones financieras

1.– Las ayudas contempladas en la presente Sección, se refieren a las operaciones tanto de préstamo como de

koak diren maileguko nahiz finantza-errentamenduko eragiketei; betiere, agindu honen eta finantza-erakundeek eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak sinatutako lankidetza-hitzarmenaren babespean sinatutako eragiketak izan behar dira, edota Kreditu Ofizialeko Institutuak eta finantza-erakundeek, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren arteko Lankidetza Protokoloaren esparruan, sinatutako finantzatze kontratuaren babespean sinatutakoak. Eta, bestetik, sail haiek eta finantza-erakundeek, Erkidegoko finantzaketa-lerroen oinarriaren gainean, hitzartzen dituzten hitzarmenen babespean gauzatutako eragiketei.

Eragiketa horiek laguntza eskatu den urtean formalizatuta egon behar dute; edo, gehienez ere, onartutako inbertsio-proiektua bukatu eta bi hilabetera. Hala ere, zenbait urtetarako aurreikusitako proiektuak badira eta emakida-ebazpenean hala kalifikatzen badira, gauzatzearen bigarren urtean edo gerokoetan egindako eskaerarako, lehenengo urtean gauzatutako eragiketa onartuko da, ekitaldian gauzatutako inbertsioaren proportzioan.

2.– Dagokion finantza-erakundeak Kreditu Ofizialeko Institutuan irekita eta eskuragarri duen linean saldoa baldin badu, eragiketak esparru horretan gauzatu behar dira.

3.– Atal honetan arautako finantza-eragiketak eurotan edota edozein dibisatan gauzatu ahalko dira; betiere, hurrengo artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Dibisetatik eurotarako truke tasa, finantza-eragiketa baimentzeko baldintzen dokumentua sinatzen den datakoa izango da; edota, eskaerarekin batera aurkeztu bada, eragiketako poliza formalizatzearen datakoa.

*8. artikulua.*– Diruz lagun daitezkeen maileguak

Diruz lagun daitezkeen maileguen ezaugarriak:

a) Diruz lagun daitekeen mailegutzat joko da honako hauetatik txikiena den zenbatekoa:

– Diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 70.

– Finantza-erakundeak baimendutako maileguaren zenbatekoa.

b) Amortizazio-epea: 5 eta 7 urte bitarte, hasierako gabealdia barne. Gabealdiak, gehienez, honakoa izan behar du:

– 7 urterako maileguak: 24 hilabete.

– 6 urterako maileguak: 18 hilabete.

– 5 urterako maileguak: 12 hilabete.

Espedienteko organo instrukzio-egileak horiez bestelako epeak onartu ahalko ditu, baldin formalizaturiko maileguan berariaz jaso bada mailegua agindu honetan zehaztutako laguntza-programan sartuta dagoe-

arrendamiento financiero a formalizar con las Entidades Financieras al amparo de la presente Orden y del Convenio de Colaboración que se suscriba entre las mismas y los Departamentos de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, o del Contrato de Financiación suscrito entre el Instituto de Crédito Oficial y dichas Entidades Financieras en el marco del Protocolo de Colaboración entre la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Instituto de Crédito Oficial, así como aquellas operaciones a formalizar al amparo de posibles Convenios que pudieran concertarse entre los Departamentos antes citados y las Entidades Financieras, en base a las Líneas de Financiación Comunitarias.

Dichas operaciones deberán estar formalizadas en el año de la solicitud de la ayuda, o como máximo, transcurridos dos meses desde la finalización del proyecto de inversión aprobado. No obstante, cuando se trate de proyectos con proyección plurianual, y calificados como tales en la propia resolución de concesión, para la solicitud efectuada en el segundo año de ejecución o posteriores, será admitida la operación formalizada en el primero de ellos, en proporción a la inversión ejecutada en el ejercicio.

2.– En tanto en cuanto la Entidad Financiera correspondiente cuente con saldo en la línea abierta y disponible en el ICO, las operaciones deberán formalizarse en dicho marco.

3.– Las operaciones financieras contempladas en esta Sección podrán ser formalizadas en euros o en cualquier divisa, siempre que éstas se ajusten a las condiciones que se fijan en los siguientes artículos.

El cambio de divisas a euros, será el de la fecha de la firma del documento de condiciones de autorización de la operación financiera o, en caso de haberse adjuntado a la solicitud, el de la fecha de formalización de la póliza de la operación.

*Artículo 8.*– Préstamos subvencionables

Características de los préstamos subvencionales:

a) Se considerará como préstamo subvencionable el importe menor de:

– el 70% de la inversión subvencionable, o

– el importe del préstamo autorizado por la entidad financiera.

b) Plazo de amortización: entre 5 y 7 años incluyendo el período de carencia inicial el cual será, como máximo:

– Préstamos a 7 años: 24 meses.

– Préstamos a 6 años: 18 meses.

– Préstamos a 5 años: 12 meses.

Por el órgano instructor del expediente podrán admitirse plazos diferentes a los anteriormente señalados, siempre que en el préstamo formalizado se recoja expresamente que el mismo se incluye en el programa de

la. Horrek ez du aldatuko emango diren laguntzen zenbatekoa. Zenbateko horrek ez du gaindituko 7 urterako maileguei dagokiena, eta gehienez 24 hilabeteko gabealdia izango du.

c) Mugaegunak: gutxienez, hilabetekoak.

d) Aplika daitekeen gehieneko interes-tasa:

– Kreditu Ofizialeko Institutuaren (KOI) lerroa erabilita gauzatzen diren eragiketetan, indarrean den KOI hitzarmenaren arabera dagokiona izango da.

– Gainerako eragiketetarako, agindu honetako 7. artikuluan zehaztutako hitzarmenean ezarriko da.

e) Eragiketa hitzarmena sinatu duen elkarren bermerako baltzuren batek bermatzen badu, interes-tasa horiek 0,25 puntu murriztuko dira.

*9. artikulua.*– Diruz lagun daitekeen finantza-errentamendua

1.– Finantza-errentamenduaren bidez finantzatutako aktibo finkoek, 26/1988 Legeko (uztailaren 29koa, kreditu erakundeen esku-hartzeari eta diziplinari buruzkoa) zazpigarren xedapen gehigarrian zehazten denez, agindu honetan zehazten diren laguntzak jaso ahalko dituzte; betiere, 6. artikuluan adierazitako baldintza orokorrak betetzeaz gain, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

– Erakunde edo enpresa onuradunak dagokion unean erosketa-aukera gauzatuko duela hitz eman behar du, eta gauzatu; betebehar hori dagokion formalizatze dokumentuan jaso behar da.

– Finantza-errentamendua eragiketak finantza-errentamenduaren bidez finantzatzeko hitzarmena sinatu duen erakundeak egitea.

2.– Finantza-errentamenduko eragiketen ezaugarriak:

a) Diruz lagun daitekeen finantza-errentamendutzat joko da honako hauetatik txikiena den zenbatekoa:

– Diruz lagun daitekeen inbertsioaren % 70.

– Finantza-erakundeak baimendutako finantza-errentamenduaren zenbatekoa.

b) Epea: gutxienez bi urte eta gehienez bost urte.

Espedientearen organo izapidegileak lehen zehaztutakoez bestelako epeak onartu ahalko ditu, baldin formalizatutako leasing-ean edo finantza-errentamenduan berariaz jaso bada agindu honetan zehaztutako laguntza-programan sartzen dela. Horrek ez du aldatuko eman beharreko laguntzen zenbatekoa. Zenbateko horrek ez du gaindituko 5 urterako finantza-errentamenduei dagokiena.

c) Mugaegunak: gutxienez, hilabetekoak.

d) Aplika daitekeen gehieneko interes-tasa:

– Kreditu Ofizialeko Institutuaren (KOI) lerroa erabilita gauzatzen diren eragiketetan, indarrean den KOI hitzarmenaren arabera dagokiona izango da.

ayudas establecido en esta Orden. Este hecho no modificará la cuantificación de las ayudas a conceder, cuantía que no excederá de la correspondiente a los préstamos a 7 años, con una carencia máxima de 24 meses.

c) Vencimientos: como mínimo de carácter mensual.

d) El tipo de interés máximo aplicable:

– Para aquellas operaciones a formalizar mediante la utilización de la línea ICO será el que corresponda según el Convenio ICO vigente.

– Para el resto de operaciones se establecerá en el Convenio previsto en el Artículo 7 de la presente Orden.

e) En el caso de que la operación sea avalada por una S.G.R., firmante del Convenio, dichos tipos de interés se verán reducidos en 0,25 puntos.

***Artículo 9.***– Arrendamiento financiero subvencionable

1.– Los Activos Fijos financiados mediante arrendamiento financiero, tal y como se define en la Disposición Adicional Séptima de la Ley 26/1988, de 29 de Julio, sobre Disciplina e Intervención de las Entidades de Crédito, podrán acogerse a las ayudas contempladas en la presente Orden siempre que, además de cumplir las condiciones generales señaladas en el Artículo 6, cumplan los siguientes requisitos:

– Que la entidad o empresa beneficiaria se comprometa a ejercitar y ejercite en su momento la opción de compra, recogiéndose dicho compromiso en el documento de formalización correspondiente.

– Que el arrendamiento financiero sea realizado por Entidad firmante del Convenio para la Financiación de Operaciones mediante Arrendamiento Financiero.

2.– Características de las operaciones de arrendamiento financiero:

a) Se considerará como arrendamiento financiero subvencionable el importe menor de:

– el 70% de la inversión subvencionable.

– el importe del arrendamiento financiero autorizado por la entidad financiera.

b) Plazo: como mínimo dos años y como máximo cinco años.

Por el órgano instructor del expediente podrán admitirse plazos diferentes a los anteriormente señalados, siempre que en el leasing o arrendamiento financiero formalizado se recoja expresamente que el mismo se incluye en el programa de ayudas establecido en esta Orden. Este hecho no modificará la cuantificación de las ayudas a conceder, cuantía que no excederá de la correspondiente a los arrendamientos financieros a 5 años.

c) Vencimientos: como mínimo de carácter mensual

d) El tipo de interés máximo aplicable:

– Para aquellas operaciones a formalizar mediante la utilización de la línea ICO será el que corresponda según el Convenio ICO vigente.

– Gainerako eragiketetarako, agindu honetako 7. artikuluan zehaztutako hitzarmenean ezarriko da.

e) Eragiketa-hitzarmena sinatu duen elkarren bermerako baltzuren batek bermatzen badu, interes-tasa horiek 0,25 puntu murriztuko dira.

*10. artikulua.–* Laguntzen zenbatekoa

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak hobaria emango du diruz lagun daitezkeen finantza-eragiketetako tasetan, hurrengo zenbatekoekin:

– Interes nominaleko tasaren 1,75 puntu, oro har.

– Elkarren bermerako baltzu batek bermatutako eta finantza-erakundeekin sinatu beharreko hitzarmenean jasotzen diren eragiketa guztietan, beste 0,25 puntuko diru-laguntza.

– Finantza-eragiketen interes nominaleko tasaren 1,75 puntu gehigarri, baldin agindu honen eranskinean aipatzen diren udalerrietan aurrera eramaten diren proiektuak badira, eta baldin udalerri horiek, hirigintzaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik degradazio nabaria dutelako, erakunde arteko planak indarrean badituzte.

Edonola ere, interes-tasaren hobariak ezingo du izan eragiketan baimendu edo gauzatu den interes-tasa nominala baino gehiagokoa.

Interes-tasa aldakorra duten eragiketen interes-tasa nominala zehazteko, deialdia argitaratzen den dataren aurreko 6 hileetako urteko EURIBORaren batez bestekoa hartuko da erreferentzia-baliotzat.

Eragiketa bakoitzari dagozkion diru-laguntzen puntuak zehaztutakoan, diru-laguntzaren zenbateko eguneratua kalkulatuko da. Kalkulu horretarako, Europar Erkidegoetako Aldizkari Ofizialean argitaratutako eta indarrean diren erreferentzia eta eguneratze tasak erabiliko dira.

*11. artikulua.–* Maileguen gehieneko zenbatekoa

Entitate edo enpresa onuradun batek eskura ditzakeen maileguen edota diruz lagundu beharreko errentamenduko finantza-eragiketen urteko gehieneko kopurua, bi kontzeptuak batera hartuta, ezingo da 1.500.000,00 eurotik gorakoa izan. Zenbateko hori eguneratu egin ahal izango da Merkataritza eta Kontsumo sailburuordeak urtero egiten duen deialdian, kontsumorako prezioen indizean gertatzen diren aldakuntzak kontuan hartzearren.

II. ATALA

ITZULTZEKOAK EZ DIREN DIRU LAGUNTZAK

*12. artikulua.–* Diruz lagun daitezkeen inbertsioak

Itzultzeko ez den diru-laguntzaz lagun daitezkeen inbertsiotzat hartzen dira:

– Para el resto de operaciones se establecerá en el Convenio previsto en el Artículo 7 de la presente Orden.

e) En el caso de que la operación sea avalada por una S.G.R., firmante del Convenio, dichos tipos de interés se verán reducidos en 0,25 puntos.

*Artículo 10.–* Cuantía de las Ayudas

El Departamento de Industria, Comercio y Turismo concederá una bonificación en los tipos de interés de las operaciones financieras subvencionables en las siguientes cuantías:

– 1,75 puntos del tipo de interés nominal, con carácter general.

– 0,25 puntos de subvención adicional todas aquellas operaciones avaladas por una Sociedad de Garantía Recíproca incluidas en el Convenio a firmar con las Entidades Financieras.

– 1,75 puntos adicionales del tipo de interés nominal de las operaciones financieras, cuando se trate de proyectos que se desarrollen en municipios relacionados en el anexo a la presente Orden ubicados en las comarcas en las que, existiendo importantes niveles de degradación socioeconómica y urbanística, cuentan con planes interinstitucionales en vigor.

En cualquier caso la bonificación del tipo de interés no podrá ser superior al tipo de interés nominal al que se ha autorizado o formalizado la operación.

Para la determinación del tipo de interés nominal de las operaciones con tipo de interés variable se tomará, como valor de referencia, la media del EURIBOR anual de los 6 últimos meses previos a la fecha de publicación de la convocatoria.

Una vez establecidos los puntos de subvención correspondientes a cada operación se calculará el importe de subvención actualizada. Para dicho cálculo se utilizarán los tipos de referencia y actualización vigentes publicados por el Diario Oficial de las Comunidades Europeas.

*Artículo 11.–* Importe máximo de los préstamos

El importe máximo anual del valor de los préstamos y/o de las operaciones de arrendamiento financiero a subvencionar, al que una misma entidad o empresa beneficiaria podrá tener acceso, considerados conjuntamente, no podrá superar el límite de 1.500.000,00 euros anuales. Dicho importe podrá ser actualizado en la convocatoria anual de la Viceconsejera de Comercio y Consumo, con el objeto de tener en consideración las variaciones en el IPC.

SECCIÓN II

SUBVENCIONES NO REINTEGRABLES

*Artículo 12.–* Inversiones subvencionables

Se consideran inversiones susceptibles de subvención no reintegrable:

1.– Txikizkako udal-merkatuen erabat eraldatzera bideratutako estudioak.

Estudioek, diruz lagundu ahal izateko, honako alderdiak behintzat jaso behar dituzte:

– Estudioaren helburuak.

– Aurrera atera beharreko proiektuaren azterketa metodologiko xehekatua.

– Merkatua eraldatzeko abantailak eta eragozpenak.

– Jarduera proposamenak, honako gai hauek hartuta:

• Merkataritza-orientazioak.
• Euskarri fisikoa: proiektuaren ezaugarriak.
• Administrazio- eta kudeaketa-ezaugarriak.
• Giza baliabideak eta kualifikazioa.
• Ekonomia- eta finantza-bideragarritasuna.

– Ekonomia-zenbatespena eta proiektuaren aldi guztiak gauzatzeko epe egokienak.

– Estudioaren helburuak.

Laguntza hauek jaso ditzakete 4.1. artikuluko b) eta c) idatz-zatietan adierazitako erakunde onuradunek.

2.– 5. artikuluko 2, 3, 4, 5 eta 6 idatz-zatietan eta 6. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituztenak, udal-merkatuak modu integralean eraldatzera bideratuak.

Laguntza hauek jaso ditzakete 4.1. artikuluko b) idatz-zatian adierazitako erakunde onuradunek.

3.– 5. artikuluko 1, 3, 4, 5 eta 6 idatz-zatietan eta 6. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituztenak eta salmenta-postuak gaitzera eta ekipatzera bideratuak.

Laguntza hauek jaso ditzakete 4.1. artikuluko a) idatz-zatian adierazitako erakunde onuradunek.

